



**LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, EUSKO JAURLARITZAREN, BIZKAIKO FORU  
ALDUNDIAREN ETA LABAYRU FUNDAZIOAREN ARTEKO ESPARRU-HITZARMENARI  
BURUZKOA, 2021-2024 EPEALDIAN HIRU ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANAREN  
OINARRIAK ETA KONPROMISOAK EZARTZEKO.**

---

2021/6 LT - LGAKZ

**AURREKARIAK**

Kultura Sailak legezketasun-txostena eskatu du aipatutako esparru-hitzarmenaren zirriborri buruz.

Txosten-eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu dira::

- Hitzarmenaren zirriborroa
- Gobernu-Batzordearen akordioaren proposamena.
- Lehen oroitidazkia eta bigarren oroitidazki osagarria, Kultura Sailburuak sinatua.
- Kultura Sailburuaren erabaki-proposamena, Hizkuntza Politikarako sailburuordeari Eusko Jaurlaritzaren izenean, batetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta, bestetik, Labayru Fundazioaren artean 2021-2024 epealdirako esparru-hitzarmena sinatzeko baimena ematen.
- Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoaren txosten juridikoa

Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/ 2016 Legearen 5.1.b. artikulua eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/ 2017 Dekretuaren 13.1.b artikulua araberan egin da; eta baita ere Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren



egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko 8/2020 Dekretuaren 7.1.i. artikulua eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 12.1.a. artikulua ondorioz.

## LEGEZKOTASUN TXOSTENA

### I.- Xedea, eskumen-gaikuntza eta arau-esparrua.

Hitzarmen honen xedea, batetik, Labayru Fundazioaren, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmenaren oinarriak finkatzea da eta, era berean, erakundearen aurreranzko ekintzabidea ziurtatzeko alderdiek beren gain hartzen dituzten betebeharrak, diruzkoak zein baliabidezkoak, arautzea. Horrela, lexikografia eta Bizkaiko euskararen Corpusa bultzatuko duten programak finantzatuko dira. Gainera, corpusarekin zerikusia duten bestelako proiektuak ere urtez urteko egitasmoan sartu ahal izango dira, seigarren klausulan adierazitako Jarraipen Batzordeko kideek hala adostuz gero.

Hitzarmena sinatzeko Eusko Jaurlaritzak dituen eskumenak ondoko arauetan daude: irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 14.1 artikuluan, apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 13. eta 15. artikuluetan.

Hitzarmena finantzatzeko, diru-laguntza izendun bat emango da, Azaroaren 11ko 1/1997 Legearen 49.6 artikuluekin bat, zeinaren xehetasunen berri ematen baitu aztertutako zirriborroaren bigarren estipulazioak.

Autonomia-erkidegoko legeriak ez du aurreikusten diru-laguntzak hitzarmen baten bidez formalizatzen edo bideratzen direnik, baina oso praktika jarraitua da, Administrazioak hirugarrenekin akordioak lortzeko duen askatasun orokorraren babespean.

Beraz, ohikoa da diru-laguntzak emateko jarraitzen diren prozedurak erakunde emailearen eta onuradunaren arteko hitzarmenetan formalizatzea.

Hitzarmenak diru-laguntza adostua formalizatu dezake, eta haren erregimenaren konfigurazioa zehatu. Hori da, hain zuzen ere, diru-laguntza dela-eta alderdien artean ezartzen den eskubide eta betebeharrak multzoa taxutzen duen araubide zehatza jasotzen eta integratzen duen titulua. Baina hitzarmenak, berez, ez dira diru-laguntzak emateko modalitate bat, baizik eta horiek antolatzeko modu bat.

Kontuan hartuta hitzarmenaren eremu subjektiboak barne hartzen dituela Gobernu Kontseiluak baimendu beharreko hitzarmenak zehazten dituzten, eta horien negoziazioa, izapidetzea, izenpetzea eta jarraipena arautzen dituzten, arauak, gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/ 2017 Dekretun bilduta daudenak.

## **2. Hitzarmenaren azterketa.**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako figurari erantzuten dio hitzarmen-proposamenak.

Hitzarmen-proposamenak 11 klausula ditu:

1. Hitzarmenaren xedea
2. Hitzarmenaren indarraldia.
3. Labayru Fundazioak bere gain hartzen dituen betebeharrak
4. Hitzarmena izenpetzen duten herri-aginteen betebeharrak.
5. Prozedura.
6. Jarraipen-Batzordea.
7. Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak.
8. Dirua itzultzea.
9. Hitzarmenaren izaera.
10. Hitzarmenaren kudeaketaren ardura.
11. Azkena

Ekimena sustatu duen saileko aholkularitza juridikoak emandako txosten juridikoan azaldutakoarekin bat egiten dugu, ondoko zehaztapenekin:

Ez dago, finantzatutako erakundearekin hitzartutako helburuen betetze-mailaren arabera, finantzaketa handitzeko edo jaisteko aukera ematen duen mekanismorik (eduki hori ez da nahastu behar zortzigarren klausula betetzen ez bada jasotako zenbatekoak itzultzeko sistemarekin, diru-laguntzen araubide orori baitagokio).

Gainera, Institutuak garatu beharreko helburuak ez dira zehazten aztertutako testuan; aldiz, hurrengo ekitaldian egingo diren programetako jarduketa-plan batera igortzen dira (3.2 klausula).

Ebaluazio-irizpideak edo ebaluazio-aldagaiak ere ez dira ezartzen, helburuen betetze-mailaren balorazioa Jarraipen Batzordearen esku uzten baita.

## ONDORIOA

Ez dugu inolako oztoporik ikusten hitzarmen-proposamena sinatzeko.

Gasteizen, 2021ko urtarrilaren 25a.